

**Bilboko hiriaren dinamizazioa sustatzen  
duten espazio publikoko sormen- eta  
kultura-sektoreen proiektuetarako  
dirulaguntzen deialdia**

## 1. AURKEZPENA

COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz, osasunaren alorrean eragindako kalteez gain, globalki erronka oso garrantzitsu bat izaten ari da, eta eragin ikaragarria izan du gizartean zein ekonomian. Munduko hiri eta eskualde guztiok, jarduera ekonomikoari dagokionez, egoera ezezagun bati egin behar diogu aurre, bai eta enplegura hedatzeari dagokionez eta gizartean sortzen diren askotariko beste arazo batzuei dagokienez ere.

Testuinguru horretan, Bilboko Udalak laguntzeko hainbat neurri eta ekintza abiarazi ditu, alde batetik, osasun-krisiaren eragina arintzeko eta, bestetik, jarduera ekonomikoa eta enplegua berriz aktibatzeko, gizarte-kohesioa bermatuta egon dadin.

Dirulaguntzen deialdia #Bilbao Aurrera planaren barruan gauzatuko da, hau da, COVID-19ak eragindako egoeran Gizarte Kohesioa, Ekonomia eta Enpleguaren Susperraldia eta Kultura Sustatzeko Plana. Neurrien multzo oso bat izango da, eta beste erakunde batzuetan diseinatzen eta ezartzen ari diren neurriekin batera koordinatu eta osatuko da. Hain zuzen ere, planaren hirugarren ardatzean adierazitakoak dira horiek, hau da, kultura- eta sormen-industriei dagozkienak. Izan ere, sektore oso garrantzitsua da, bai gizarte-garapenerako, bai garapen ekonomikorako, eta, gainera, pandemia honek eragindako ondorioak modu oso berezian pairatu dezaketen pertsonak osatzen dute: autonomoak, ETEak, mikroenpresak eta elkarteak.

Horri dagokionez, Bilboko Udalak udal-entitate bat du, Bilbao Ekintza EPEL, eta bertako Enpresa Garapenerako Arloa arduratzen da kultura- zein sormen-sektoreetako ekimenak sustatzeaz eta babesteaz, besteak beste, Aurrera Planaren 3.2. neurria abian jartzeko, non deialdi hau aipatzen den.

Beste alde batetik, eta udalaren dirulaguntzen kudeaketa egokia ezartze aldera, Bilboko Udalak, dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako arauzko eskakizunak betez, 2016ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra onetsi zuen. Ordenantza horren azken onarpena 2016ko uztailaren 20an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (138 zk.).

Hori guztia oinarri hartuta, Bilbao Ekintza, E.P.E.L.en Administrazio Kontseiluak, 2020ko irailaren 11ko bilkuran, 2020rako Bilboko hiriaren dinamizazioa sustatzen duten Espazio Publikoko Sormen- eta Kultura-Sektoreen Proiektuetarako Dirulaguntzak jasotzeko deialdia onetsi du.

## 2. HELBURUA

Deialdi honen xedea da Bilboko sormen- eta kultura-sektoreari babesa ematea eta hiria dinamizatzen duten proiektuak diruz laguntzea, bai eta herritarren parte-hartzea modu seguru eta arduratsuan bideratzea ere.

Proiektu horiek 3. apartatuan aipatutako sormen- eta kultura-sektoreen kategorien barruan sartzen dira, eta espazio publikoetan garatuko dira, hala nola parkeak, plazak, kaleak edo eraikin publikoak. Era berean, doan izango dira herritarrentzat.

Hori horrela, hauexek dira deialdi honetan lortu nahi diren helburuak:

- Bilboko sormen- eta kultura-industrien sektorea ekonomikoki laguntzea.
- Bilboko herritarrak hiribilduan gertatzen denaren protagonista izan daitezen lortu nahi da.
- Hiri batu, resiliente eta malgu bat finkatu nahi da, hau da, egoera berriek ezartzen dizkiguten bizitzeko modu berrietara egokitzeko gai den hiri bat.
- Hiribilduko espazio publikoak dinamizatuko dituzten sormen- eta kultura-proiektuak garatzea erraztea, eta herritarren parte-hartze eta elkarrekintza aktiboa bultzatzea.
- Hiria eta espazio publikoak suspertu nahi dira modu kontziente, arduratsu, iraunkor eta zibiko batean.
- Hiriaren merkataritza-jarduera babestea.

## 3. PARTE-HARTZAILEEN BETEKIZUNAK

Ekimen honetan parte hartu ahal izango dute pertsona fisiko zein juridikoek, baldin eta –deialdi honetan araututakoaren arabera– Bilboko kultura- eta sormen-sektoreetakoak badira eta honako forma juridiko hauetakoren baten pean jarduten badute: ETEak edo mikroETEak, autonomoak, elkarteak edo fundazioak.

Ondore horietarako:

- a) Enpresa txikiaren (ETE) definizioa hartuko da kontuan, Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamenduaren arabera.
- b) Kultura- eta sormen-sektoreetan sartuko dira jarraian zerrendatzen diren jarduerak:
  - Arkitektura
  - Arte eszenikoak
  - Ikusizko arteak
  - Artisautza

- Ikus-entzunezkoak
- Eduki digitalak
- Diseinua
- Moda
- Musika
- Publizitatea eta marketina
- Bideo-jokoak

Pertsona edo entitate parte-hartzaileek, halaber, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- Jarduteko erabateko gaitasuna izatea.
- Legeari jarraikiz, kontratatzeko debekurik ez izatea.
- Administrazioekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga-betebeharrak egunean edukitzea.
- Dokumentazioa aurkeztean, Erantzukizun Zibilaren aseguruak edukitzea, derrigorrezkoak baitira proiektua garatzean sortutako arriskuak estaltzeko.
- Egoitza soziala Bilboko udalerrian izatea.

Deialdi honetatik baztertuta geratuko dira administrazioak, sozietate publikoak eta horien menpeko edo haiei lotutako erakundeak.

Deialdi osoan zehar bete beharko dira baldintzok.

#### **4. PROIEKTUEN EZAUGARRIAK**

Aurkeztutako proiektuetan oinarri hauetako 2. eta 3. apartatuetan adierazitako xedea eta betekizunak bete beharko dira, eta honako formatu hauetako batean garatu:

- Parte hartzeko proposamen artistikoak.
- Herritarrek parte hartzea edo elkarri eragitea ekarriko duten esku-hartze grafikoak eta instalazio iragankorrak.
- *Performance*- edo informazio-ibilbide gidatuak.
- Tailerrak
- Ikusleekin elkarri eragitea edo hiria dinamizatzea sustatzen duen beste edozein jarduera, baldin eta 3. puntuan aipatutako sormen-sektoreek gauzatzen badute (*flashmobak*, grabaketak herritarrekin, jolasak eta abar).

Horrez gain, sormena abiapuntu hartuta, proiektuetan jorratu egin beharko dira gaur egungo testuinguruari buruzko gaiak eta, era berean, Nazio Batuek onartutako garapen sozial eta jasangarriaren helburuekin duten lotura baloratuko da [\(https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/\)](https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/).

Ezinbesteko betekizuna da proiektuetan honako hauek jasotzea eta bete daitezkeela egiaztatzea: indarrean dagoen araudiko prebentzio-neurriak bermatzea, lan-arriskuak, erantzukizun zibila, bai eta agintariak Covid-19a edo osasun publikoko beste edozein alderdi dela eta ezarritako segurtasun-neurri berriak ere.

Proiektu guztiak espazio publikoan garatu beharko dira, hau da, kaleetan, parkeetan edo plazetan, bai eta titulartasun publikoko eraikinetan ere. Kasu guztietan proiektua garatzeko toki zehatz bat proposatu beharko da, eta bideragarritasuna kontuan hartu (tamaina, zirkulazioa, segurtasuna, bolumena, edukiera, egokitzeko kostuak eta abar).

Edonola ere, Bilbao Ekintzak proiektuak gauzatuko diren espazioa edo kokapena aldatzeko eskubidea izango du egitea errazteko edo hiriko barrutien arteko jarduera-oreka lortzeko.

Proiektuan beharrezkotzat jotzen diren beste egokitzapen edo aldaketa batzuk egiteko, ados agertu beharko dira sustatzailea eta Bilbao Ekintza, baina horrek ez du ekarri behar aldaketa garrantzitsurik proposamenaren edukian.

Proiektuak gauzatzeko ebazpenaren epea jakinarazten den unean hasi eta 2021ko martxoaren 31n amaituko da. Egikaritzeko behin betiko data adostasunez erabakiko dute Bilbao Ekintzak eta proiektuaren arduradunek.

Ezinbestekak bultzatuta, hautatutako jarduerak data hori baino lehen egin ezin badira, Bilbao Ekintzak horiek beste data batzuetan egitea erabaki ahal izango du.

## **5. KATEGORIAK ETA DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK**

Dirulaguntzaren bost kategoria daude, eskatutako zenbatekoaren arabera. Horrela, diruz lagunduko den zenbatekoa kategoria bakoitzari dagokionaren berdin-berdina izan behar da, eta ezin izango onartu bitarteko kopururik edo jarraian adierazitako kopuruetatik bestelakorik, dirulaguntza justifikatzeko fasean egon daitezkeen murrizketak alde batera utzi gabe:

A kategoria: 2.000 euroko dirulaguntza

B kategoria: 5.000 euroko dirulaguntza

C kategoria: 10.000 euroko dirulaguntza

D kategoria: 15.000 euroko dirulaguntza

E kategoria: 20.000 euroko dirulaguntza

Era berean, proiektu bakoitzak, eskabidean, aipatutako kategorietako batean sartzeko eskatu beharko du, aurkeztutako kostu hautagarrien zenbatekoaren arabera.

Laguntza horiek bateraezinak dira izaera bereko beste edozeinekin eta, beraz, aurkeztutako proiektuek ezin izango dute Bilboko Udalaren edo beste erakunde edo administrazio publiko batzuen beste laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso.

Proiektu bakarrean hainbat jarduera ezberdin txertatu ahal izango dira, betiere, koherentziari eusten badiote, eta denak batera kategorietakoren baten ezarritako zenbatekora iristen badira. Aurrekontu osoa honela banatuko da kategoria bakoitzean, eta horien artean birbanaketak egon ahal izango dira, balorazio-prozesuan egoki jotzen bada:

A kategoriako 10 proiektu (2.000 € bakoitza): 20.000 €, guztira

B kategoriako 6 proiektu (5.000 € bakoitza): 30.000€, guztira

C kategoriako 6 proiektu (10.000 € bakoitza): 60.000€, guztira

D kategoriako 6 proiektu (15.000 € bakoitza): 90.000€, guztira

E kategoriako 5 proiektu (20.000 € bakoitza): 100.000€, guztira

Pertsona edo entitate eskatzaileak proiektu bat baino gehiago aurkeztu ahal izango du, baina inprimaki bana aurkeztu beharko du. Edonola ere, entitate edo pertsona berari emandako dirulaguntzen zenbateko osoak ezin du 20.000 euro baino gehiago izan. Balorazio-prozeduran entitate edo pertsona beraren hainbat proiektu hautatzen badira eta, guztira, gehieneko 20.000 euroko zenbatekoa gainditzen badute, deialdi honen bitartez babestu nahi dena edo nahi direnak aukeratu beharko da/dira.

## **6. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN KONTZEPTUAK ETA PROIEKTUEN AURREKONTUA**

Proiektua fase guztietan gauzatzeko beharrezkoak diren kontzeptu guztietarako erabili ahal izango da dirulaguntza: norberaren ordainsariak, kontratatutako langileen gastuak, azpikontratazioak, proiektua garatzeko beharrezkoak diren materialak erostea, aseguruak, garraioa eta abar.

Dirulaguntzaren zenbatekoak ezin izango du inoiz aurkeztutako aurrekontuen edo justifikatzen diren kostu guztien %100 gainditu. Horretaz gain, BEZa kanpoan utzi beharko da, salbu eta laguntza eskatzen duen entitatearentzako/profesionalarentzako kengarria ez bada.

Proiektuen aurrekontuan prozesu osoaren kostua egon beharko da jasota, besteak beste, diseinua, ekoizpena edo egikaritzea, administrazioa, koordinazioa, segurtasuna edo gauzatzeko beharrezkoa den edozein zeregin. Horrez gain, beren-beregi adierazi beharko da zein kontzeptu zehatzetarako eskatzen den dirulaguntza.

## **7. PROIEKTUAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA ETA EPEA**

Eskabideak aurkezteko epea deialdi honen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta hogeitau egun naturaleko iraupena izango du.

Proposamenak aurkezteko, webgunean horretarako gaituko den inprimakia bete beharko da: <https://www.bilbao.eus/BilbaoEkintza/es>. Gero, honako helbide elektronikoa honetara bidaliko da: [sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus).

Inprimaki horri PDF fitxategi bat erantsi ahal izango zaio (testu, plano, marrazki, irudi eta abarrekin), non inprimakian jaso ez den informazio osagarri edo argigarria aurkeztuko den. Gehienez ere, 10 orrialde izango ditu, eta 10 Gb-ko pisua.

Eskabidean adierazitako betekizunak betetzen ez direnean eta oinarri hauetan eskatzen den informazioa eransten ez direnean, interesdunari jakinaraziko zaio hamar eguneko epea izango duela akatsak zuzendu edo nahitaezko agiriak bidaltzeko. Jakinarazpenean beren-beregi ohartaraziko zaio, ezen, eskatutakoa bete ezean, eskabidea gaitzetsizat joko dela, hala ebatzi ondoren.

Hori horrela, eskaera osorik dagoenean joko da aurkeztutzat, antzematen diren ez-egiteak zuzenduta.

Edozein zalantza argitzeko, honako helbide honetara bidali dezakezu mezua: [sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus](mailto:sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus).

## **8. BALORAZIOA ETA HAUTATUTAKO PROIEKTUAK JAKINARAZTEA**

Balorazio Batzorde bat arduratuko da proiektuak baloratzeaz. Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak izendatutako lau kidek osatuko dute batzordea: burua, idazkaria eta bi kide. Kulturaren eta sormenaren sektorean eskarmentudunak izango dira, bai eta tokiko garapenean ere. Honako irizpide hauek hartuko dituzte aintzat:

- Bideragarritasun tekniko-ekonomikoa eta aurrekontuarekiko koherentzia: gauzatzeko gaitasuna; garapen-maila eta proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren

bitartekoak; proposatutako zereginen eta baliabideen koherentzia; kostuen koherentzia. **15 puntu**

- Proposamenaren kalitatea. **15 puntu**
- Herritarrekin dagoen elkarrekintza-maila. **15 puntu**
- Parte hartuko duten pertsonen osasunaren segurtasuna bermatuko duten neurriak. **10 puntu**
- Hiriaren egungo testuinguruarekiko eta Garapen Jasangarriko Helburuekiko lotura. **10 puntu**
- Ikusgarritasuna eta eragina: jarduera zenbat pertsonarengana iritsiko den eta sare sozialetan zein komunikabideetan izango duen eragina. **10 puntu.**
- Euskararen erabilera sustatzea. **10 puntu**
- Eskarmentua oinarri hauetako 3. puntuan adierazitako sektoreetan: ibilbidea; sariak/bekak/aintzatespenak; ospe handiko ekitaldietan/jaialdietan/espazioetan parte hartu izana. **5 puntu**
- Originaltasuna edo berrikuntza: aldez aurretik egin ez den jarduera bat bada, edo Bilbon egin ez bada edo, nahiz eta Bilbon egin, funtsezko aldaketa bat badu. **5 puntu**
- Merkataritza-jarduera dinamizatzea. **5 puntu**

Lehenengo hiru irizpideetan, gutxienez, 8 puntu eta laugarren irizpidean, gutxienez, 6 puntu gainditzen ez dituzten proiektuak dirulaguntza jasotzeko prozeduratik baztertuko dira.

Balorazio Batzordeak, kategoria bakoitzean aurkeztutako eskaerak baloratu ostean eta lehen aipatutako irizpideekin bat etorritik, txosten bat egingo du, eta bertan ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun bat zehaztuko dira.

Instrukzio-organoak, espedienteak eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du, eta bertan dirulaguntza eman edo ukatu den adieraziko du.

Ondoren, hobekien baloratutako proiektuen sustatzaileekin harremanetan jarriko gara, proiektuaren azken alderdiak elkarrekin zehazteko eta onartzeko. Jakinarazi eta gero datoren edo lekuaren aldaketaren bat erabakitzen bada, eranskin batean jasoko da.



## 9. EBAZPENA

Eskabidearen alderdi zehatzak ezarri ondoren, Bilbao Ekintzako Zuzendaritza Nagusiak dagokion entitateak aurkeztutako eskaerari buruzko ebazpena emango du, eta jakinarazi egingo du. Hori guztia hilabeteko epean, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Gehieneko epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, dirulaguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsi dela ulertuko da. Hala eta guztiz ere, epe hori igaro bada ere, Bilbao Ekintza, EPELeK dagokion ebazpena eman eta jakinarazi ahal izango du. Aurrekontuko partida deialdi honetan jasotako kopurura mugatuta dagoela ikusirik, hura agortzeak eskatutako dirulaguntzak ukatzea ekarriko du.

Dirulaguntza ematen edo ukatzen duen ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dio. Haren aurka Zuzendaritza Nagusiaren aurrean aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko da.

Ebazpenaren jakinarazpenean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dela adieraziko zaio eskatzaileari, eta hori egiteko 20 eguneko epea izango du jarduera hasten den unetik aurrera:

- Entitatearen IFZren fotokopia edo NANaren fotokopia baldin eta pertsona fisikoak badira.
- Erakundearen estatutuen kopia, legez onetsita eta haien inskripzio egiaztagiriarekin batera, entitateen kasuan.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ziurtagiria (JEZ)
- Ogasun Publikoarekiko betebeharrei dagokienez egunean dagoela dioen ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagokienez egunean dagoela dioen ziurtagiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emana.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren diruz lagunduko diren jarduerak hasten direnetik.
- Gainera, emandako dokumentazioarekin sormen- eta kultura-sektoreko kide izatea justifikatzen ez bada, kultura- edo sormen-sektoretako kide izatearen egiaztagiria aurkeztu beharko da, hirugarren atalean xedatutakoaren arabera.

Aurkeztutako dokumentazioan egiaztatzen bada deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez dela, zuzenketa eskatu ondoren emandako dirulaguntza indarririk gabe uzteko ebazpena emango da.

Pertsona edo erakunde onuradunetako batek dirulaguntzari uko eginez gero, edo entitate onuradunetako bati onartutako dirulaguntza atzera botaz gero, Bilbao Ekintzak erabaki ahal izango du, beste deialdi bat egin beharrik gabe, kategoria bereko hurrengo pertsona edo entitate eskatzaileari dirulaguntza ematea, baldin eta deialdiaren baldintzak betetzen baditu, eta, betiere, gutxienez ukatutako eskaeretakoren bati aurre egiteko kreditu nahikoa liberatu bada. Zuzendaritza Nagusiak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, luzatu ezin izango den 10 eguneko epean dirulaguntzaren proposamena gauzatu ahal izateko. Pertsona edo erakunde eskatzaileak edo eskatzaileek proposamena onartu ondoren, emateko egintza burutuko da.

## **10. ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Onartutako zenbatekoak ordaintzeko, dagokion bezala justifikatu eta dokumentazio egokia aurkeztu beharko da. Horrela, zenbatekoaren % 75 ordainduko da ebazpenaren ondoren aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela egiaztatzen denetik, eta gainerako % 25a proiektua amaitzean eta honako dokumentazio hau aurkeztean:

- Jarduketaren memoria teknikoa, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen (bertan, jarduerak ikusiz ezagutzea ahalbidetzen duen dokumentazio grafikoa erantsi behar da, bai eta spoten, iragarkien, irrati-iragarkien kopiak ere, eta editatzen den material grafikoaren edo inprimategikoaren lagin bat, edo sustatzeko eta zabaltzeko banatzen diren erakargarriak eta, hala badagokio, jardueraren garapena egiaztatzen duten argazkiak).
- Justifikatzeko txosten ekonomikoa, eskuratutako ereduaren arabera, hurrengoekin:
  - Egin diren jardueretan izandako gastuak, hartzekoduna identifikatuta.
  - Eskatu diren aurrekontuak (3), dirulaguntzari egozten zaion gastuetakoren bat Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak kontratu txikietarako ezarritako muga (15.000,00 euro) baino handiagoa izatekotan.
  - Diruz lagunduko den ekintza egin izanari dagozkion fakturak, jatorrizkoak edo kopia erkatuak, eta ordainketa egiaztatzen duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da. Besteen kontura kontratatutako langileen gastuak justifikatzeko, Gizarte Segurantzaren ordainagiriak eta nominak aurkeztuko dira, ordainketa-egiaztagiriekin batera.

Autonomoen erregimenean dauden pertsonak jasotako ordainsarien kasuan, zenbateko hori justifikatu behar izatetik salbuetsita geratuko da, betiere,

eskaeran hasiera batean jasotakoarekin bat badator eta proiektuaren premiekin koherentea bada.

Justifikazioan kontzeptu batzuk beste batzuekin konpentsatu ahal izango dira, betiere, aurreikusita badaude edo dirulaguntzaren eskaeran aurkeztutakoen antzekoak badira eta proiektuaren funtsa aldatzen ez badute. Bilbao Ekintzak alde aurretik onetsi beharko ditu. Eta proiektuaren funtsa aldatzen ez badute. Bilbao Ekintzak alde aurretik onetsi beharko ditu.

Fakturak 2021eko martxoaren 31 baino lehenagokoak izan beharko dute. Fakturak 2021eko apirilaren 30ean ordaindu beharko dira, beranduenez.

Atal honetan araututako justifikazioa aurkezteko gehieneko epea 2021eko maiatzaren 14a izango da.

Laguntzak emateko eta, hala denean, ordaintzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta bere erakunde autonomoek edo Bilboko Udalak berak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan abiarazitako edozein itzulketa edo zehapen-prozedura amaitu beharko da aurretik.

Bidezkoa izango da jasotako kopuruak itzultzea; horrez gain, dirulaguntza ordaindu den unean hasi eta dirulaguntza itzuli behar dela erabaki den egunera arteko berandutzako interesak eskatuko dira, 38/2003 Lege Orokorraren, Dirulaguntzei buruzkoaren, 37. Artikuluan ezarritako kasuetan.

## **11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Hauek dira erakunde onuradunen betebeharrak:

- a) Bilbao Ekintza EPELen aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak betetzen dituztela, gastua eta horren ordainketa egin dutela eta dirulaguntza ematearen edo erabiltzearen helburua bete dutela.
- b) Bilbao Ekintza EPELek egin ditzakeen egiaztapen-jarduketei men egitea. Era berean, erakunde onuradunek men egin beharko diete kontrol-organo eskudunek, bai naziokoek bai erkidegokoek, egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-kontrolako jarduerak guztiei. Horretarako, aipatutako jarduketak egitean eskatzen zaien informazio guztia aurkeztu beharko dute.
- c) Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk eskuratu badira, hori Bilbao Ekintza EPELi

jakinaraztea. Horien guztien berri jakin eta berehala egingo da jakinarazpena eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

- d) Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, erregelamenduz ezarritako moduan, eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean ezarritakoari kalterik egin gabe.
- e) Kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskaturik izatea, merkataritzako legeriak eta kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakiokeen sektoreko legeriak eskatzen dutenaren arabera. Horrez gain, Bilbao Ekintza EPELek eskatzen dituen kontabilitateko egoera-orriak eta berariazko erregistro guztiak izango dituzte, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak egokiro erabiltzea bermatzeko helburuarekin guztiok ere.
- f) Jasotzen diren funtsak aplikatzeko egiaztagiria gordetzea, agiri elektronikoak barne, agiri horiek guztiak egiaztatu eta kontrolatu ahal direlako.
- g) Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan azaltzen diren kasuetan jasotzen diren funtsak itzultzea.
- h) Bilbao Ekintzak nahitaez erabili beharko ditu justifikazio-eredu zehatzak, bere fiskalizazio-lana errazteko. Bilbao Ekintzak erabaki ahal izango du justifikazio-kontuarekin batera kontu-auditore baten txostena aurkeztea, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuaren mendeko Kontuen Auditoreen Erregistro Ofizialean jardule gisa inskribatuta dagoena. Txosten horretan, justifikazio-kontuaren edukia (memoria ekonomikoa zein teknikoa) eska daitezkeen betebeharrak betetzera egokitzen den adieraziko da. Onuradunak urteko kontuak ikuskatu behar baditu, auditoreak berak berrikusiko du justifikazio-kontua; bestela, berak egingo du izendapena. Onuradunak auditoretzaren esku jarri beharko ditu araudi erregulatuak eska diezazkiokeen liburu, erregistro eta agiri guztiak. Eskatutako dirulaguntza eman ondoren sinatzen den hitzarmenean zehaztuko da betebeharrak hori.

Aurkeztu den proiektua onartzearen ondoriozko betebeharrak bereziki dagokienez, hautatutako proiektuen parte-hartzaileek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- Diruz lagundutako proiektua adostutako data, leku, ezaugarri, baliabide eta aurrekontuan gauzatzea.
- Proiektuak egiteko behar dituen zeregin eta prozesu guztiak bere gain hartzea, hala nola espazio publikoari edo eraikin publikoen titularrei baimenak eskatzea, izen-ematea, segurtasun-neurriak, muntaiak, desmuntatzeak, edukieren kontrola, zabalkundea eta abar.
- Nahiz eta Bilboko Udala, Bilbao Ekintza EPEL edo haren Administrazioari lotutako erakunderen bat arduratuko diren Bilbao Aurrera Planaren esparruan neurri horren berri emateaz, entitateak proiektuaren zabalkunde-, komunikazio- edo publizitate-jarduerak egiten baditu, ematen zaizkion logotipoak jaso beharko ditu, eta proiektu hori Bilbao Aurrera Planaren barruan dagoela adierazi beharko du.
- Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako jarduera zabaltzeko, iragartzeko eta komunikatzeko erabiltzen diren euskarri guztietan.
- Bilbao Ekintza EPEL, haren Administrazioari lotutako erakunderen bat edo Bilboko Udalari baimena ematea diruz lagundutako proiektuen inguruko informazioa edo emaitzak argitaratzeko, egoki deritzon bitarteko guztietan.

Oinarri hauetan parte hartze hutsak berekin dakar indarrean dagoen legeria betetzea, oinarriak onartzea eta Bilbao Ekintza EPELek oinarriekin zerikusia duen edozein zalantza argitzeko edo edozein interpretazio lotesle egiteko duen gaitasuna aitortzea. Bilbao Ekintza salbuetsita egongo da erantzukizunetik, hirugarrenei urratu dakizkiekeen eskubideei dagokienez.

## **12. AURREKONTU-ZAINPEKETA**

Bilbao Ekintzak 300.000,00 € bideratuko ditu deialdi honetan jasotako dirulaguntzetarako.

## **13. LAGUNTZA-PROGRAMAREN INDARRALDIA ETA GARAPENA**

Laguntza-programaren deialdia 7. puntuan ezarritako epean aurkezten diren eskaerei aplikatuko zaie.

Baldin eta programa indarrean egon bitartean beharrezkotzat jotzen bada haren alderdietakoren bat garatzea edo programaren muina aldaraziko ez duen egokitzapenen bat egitea, Administrazio Kontseiluak Bilbao Ekintza EPELeko Zuzendaritzari eskumena emango

dio egin beharreko aldaketei ekiteko, eta Zuzendaritzak horien berri eman beharko dio Kontseiluari aldaketen erabakia hartu ondoren egiten den lehengo bileran.

#### **14. DATU PERTSONALAK BABESTEKO KLAUSULA**

Abenduaren 13ko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorritz, Bilbao Ekintzak adierazten du oinarri hauek izapidetzearen ondorioz agiritan jasota geratzen diren datu pertsonalak berriazko fitxategi batean gordeko direla. Fitxategia Bilbao Ekintza EPELen titulartasuneko izatera pasako da eta Enpresa Sustapen Sailak ematen dituen zerbitzuak kudeatzea du helburu. Helbidea hauex da: Nafarroa kaleko 5. zenbakia. 48001 – Bilbo.

Nolanahi ere, interesduna horren jakitun geratzen da eta, deialdi honetan parte hartuz, baimena ematen du haren datuak helburu horretarako erabil daitezen eta aholkularitza-enpresei, erakunde publikoei, fundazioei, elkarteei edo finantza-erakundeei laga dakizkien, enplegu-politika aktiboak kudeatzeko, lan-merkatuko bitartekari jarduteko eta lan-merkatuari buruzko azterketak eta analisiak egiteko.

#### **15. EMATEN DIREN LAGUNTZEN PUBLIZITATEA**

Dirulaguntzen arloan indarrean dagoen arautegia betetzeko, Bilbao Ekintza EPELek bere webgunean eta aldizkari ofizial egokietan argitaratuko ditu ematen diren dirulaguntzak.

#### **16. PROIEKTUAK GARATZEKO BALDINTZAK**

Diruz lagundu daitezkeen proiektuen garapena ezin izango da edozein legezko bitartekoetan hirugarrenei aintzatetsitako eskubideen kontrakoa izan, bai nazionalak baita nazioartekoak ere, eta ondorio horien barne egongo da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

Halaber, abenduaren 17ko 1303/2013 Araudiko (EB) 7. eta 8. artikuluetan jasotako oharren arabera, Bilbao Ekintzak enpresei eta enpresak sortzeko proiektuei laguntzeko dituen tresnen bitartez, erakunde onuradunek gauzatzen duten merkataritza-praktikak errespetatu egin beharko ditu araudi horretan jasotako irizpideak; horrenbestez, ingurumena babestu eta hobetzeko sustapenarekin eta garapen iraunkorarekin zerikusia duten jardunbide egokien inguruan sentsibilizatzea bilatuko du, bai eta enpresen barruan lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari lotutako jardueri dagokienez ere. Halaber, sexuan, arrazan edo jatorri etnikoan, erlijioan zein sinesteetan, desgaitasunean, adinean edo sexu orientazioan

oinarritutako diskriminazioaren aurka eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egingo da.

Bukatzeko, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuarekin bat eginez, onuradunek proiektua eratzean eta garatzean lehentasunez euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, albo batera utzi gabe beste hizkuntza batzuk erabiltzea, proiektuak hala eskatzen duenean.

### **17. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Deialdi honetan aurreikusi ez diren alderdi guztietarako, honako hauek aplikatuko dira: Bilboko Udalak eta bere organismo eta zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren eta administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/15 Legearen bidez onarturiko Araubidea eta Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/15 Legea.

Era berean, aplikagarria izango da dirulaguntzei dagokienez Eusko Legebiltzarraren emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezartzen dena eta bestelako arau osagarriak.

### **18. INDARREAN SARTZEA**

Deialdi hau indarrean sartuko da beronen laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

### **19. INTERPRETAZIOA**

Bilbao Ekintzak eskubidea gordeta du egoera zalantzarrietan oinarri hauek interpretatzeko, eta bere erabakiak behin betikoak izango dira.